

Ostirala

24

Kontzertua

- Coti pop-rock taldearen kontzertua. Antiguako Kandela aretoan, 23.30etan.
- Donostiako Kontserbatorioko Bandaren kontzertua. Bulebarreko kioskoan, 20.00etan.

Larunbata

25

Kontzertua

- Huapango mariatxiaren emanaldia. Antiguako Kandela aretoan, 23.30etan.
- Arturo O'Farril eta Papo Vasquezaren emanaldia. Altxerri tabernan (Erregente Erregina 2), 20.30etan eta 22.30etan.
- Miramongo eguerdiak. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Haize Zortzi-koak Mozart-en obrak eskainiko ditu. Orkestraren egoitzan, 11.00etan.

Zinema

- "Haurrak zinera": "Shrek" animaziozko filma emango da. Lugaritz kultur etxean, 17.00etan.

Dantza

- Kresala dantza taldearen "Marixe" ikuskizuna. Egiako kultur etxean, 18.00etan.

Igandea

26

Festa

- II. Gehitu Tea-dance festa. Antiguako Kandela aretoan, 19.30etan.




Lagunekin Kantari Intxaurrondon

Intxaurrondo Zaharreko Bizi-lagun Elkarteak antolatutako "Lagunekin kantari" egitasmoa azken txanpara heltzen ari da. Hilaren 17an Jean Mixel Bedaxagar-en saioa

izango da, eta maiatzaren 23an, "Etxekoekin kantari" izenburupean, Itziar Zamora, Ainhoa Ansa eta Jon Bergaretxe-ren abestiak entzun ahal izango dira. Azkenik, maiatzaren 24an kantu-jira egingo da auzoan barrena 20.00etan, eta 22.00etan, berriz, kantu afaria. Emanaldi guztiak Larrotxene kultur etxean izango dira. Afarirako txartelak ere kultur etxean bertan eros daitezke.

Iñaki Salvador Quartet Altxerri

Hilaren 18an, larunbata, Iñaki Salvador Quartet taldeak kontzertua emango du Altxerri tabernan. Iñaki Salvador donostiarra eskarmentu handiko pianojolea da, eta urtero parte hartzen du, aspalditik, Donostiako Jazzaldian. Kontzertua gaueko 23.00etan hasiko da.



U. Aita Donostia Astea

Hilaren 21ean hasiko da V. Aita Donostia Musika Astea. Inaugurazio kontzertua Maria Cristina hotelean izango da, 20.00etan. Bertan, Anabel Aldalur pianojoleak eta Aurelio Viribay bakarlariak euskal kantuak eskainiko dituzte. Hilaren 22an Josetxo Goy-Ariberen taldearen txanda izango da, eta 23an Aita Donostia abesbatzak "Misa Criolla" obra eskainiko du. Hilaren 24an Musikabi orkestra ariko da, eta hilaren 25ean, aldiz, Bergarako eta Arrasateko abesbatza. Maria Cristina hoteleko kontzertua izan ezik, emanaldi guztiak Kaputxinoen elizan izango dira 20.00etan.

"NI HARTZA NAIZ"



Hartz baten komeriak Lugaritzen

Hilaren 18an, larunbata, Teatro Paraiso taldeak "Ni hartz naiz" izeneko antzezlanak jokatuko du Lugaritz kultur etxean. Gaztetxoei zuzendutako obra honek hartz izateari utzi nahi ez dion hartzaren istorioa kontatzen du. Emanaldia 18.00etan hasiko da.